

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**
Gure zerbitzua Internet bidez eskaintzen da, web-gune bat izango da lokalen alokairuak eskaintzen dituena, horretarako gure helburua hasiera batean web-gunea birala izatea eta popularra bihurtzea izango da ahalik eta bezero gehien izateko. Web-gunea ezaguna egiteko eta bezeroei interesa sortzeko sare sozialen bidez aurkeztuko dugu. Bertan gure web-gunearen helburua eta erraztasunak azalduko ditugu. Web-gunean bertan bezeroak gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta korreoa azalduko dira. Web-gunearen bitartez lokala alokatzeko aukera egongo da, bezeroak lokala aurrez-aurre ikusi nahiko balu gurekin geratzeko aukera ere edukiko zuen.